

KONTROL MOZIOA

Puntu kritikoak eraldatzeko planaren inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urtarrilaren 22an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Segurtasunaren inguruko kezka soziala bolo-bolo dabilkigu, eta beste arlo batzuetatik gaiari heltzen zaion arren, uste dugu hirigintzak ere asko eragiten duela kaleak seguruak eta atseginak izan daitezen hiritar guztiontzat. Zentzu horretan, puntu kritikoen inguruan egin beharreko lanketa sendotzeak garrantzia handia duela uste dugu.

Aurten, bi puntu eraldatzea aurreikusi du Udal Gobernuak, Herrerakoa eta Misericordiakoa 2025eko aurrekontuetan sartuta baitaude. Ezin aipatu gabe utzi, baina, bi proiektuak iragan aurrekontuetatik aurreikusiak daudela, (2022ko eta 2023ko aurrekontuetatik, hurrenez hurren); urtez urte atzeratu egin dira bi proiektuok, eta beraz, azken urteetan puntu kritikoetara bideratutako aurrekontua ez da gastatu. Hori gutxi ez balitz, jada badakigu Misericordia kaleko proiektua ezingo dela aurten garatu, trenbidean aurrez egin beharreko lanak aurten amaituko ez direlako. Horrek esan nahi du puntu kritikoen eraldaketarako bideratutako aurrekontuen erdia ez dela gastatuko, edo beste era batera esanda, aurten egin beharreko bi eraldaketetatik bat (gutxienez) ez dela egingo, azken bi-hiru urteetan kontrakoa hitzeman arren.

Gure ustez apustuak bestelakoa behar luke, gure kaleak denontzat atseginak izatea nahi badugu, eta segurtasun faltaren sentrazioari prebentzioz eta estrukturalki erantzun nahi badiogu. Horregatik, puntu kritikoen eraldaketara inbertsio gehiago bideratu behar direla uste dugu, inbertsio horiek exekutatu



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -

20003 Donostia

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697



direla bermatu, eta proiektu hauen exekuzioa ezinezkoa balitz, beste proiektu batzuekin ordeztuz.

Horretarako tresna erabilgarria da, zalantzarik gabe, Donostian dugun puntu kritikoen mapa, eguneratzen doana eta jada hamarkadatik gora bizirik dena. Beraz, esan dezakegu hirian badugula eraldaketa beharrean dauden eremuen argazkia osatuta. Hala ere, uste dugu lanketa hau efektiboa izango bada, ezinbestekoa dela auzoetara jaitsi eta horren parte auzotarrak egitea: gure kaleak nolakoak diren eta nolakoak izatea nahi dugun, auzotarrok ere zer egin dezakegun gure kaleak atseginagoak izan daitezen... Modu kolektiboan diseinatzeko prozesuak martxan jarri behar lituzke Udalak. Norabide honetan ere, esfortzua handitu eta auzoetan prozesuak abiarazi behar lirateke.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari puntu kritikoak eraldatzeko proiektuak datetan zehaztu ditzan.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari puntu kritikoak eraldatzeko aurreikusitako proiektuak aurten exekutatu ezin badira, beste puntu kritiko batzuen eraldaketarekin ordeztu ditzan.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari puntu kritikoen lanketarako auzokako lanketa abiatu dezan bertako bizilagun eta eragileekin.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia